

Esp.zk. SUBV_CON_COMPET/2025/8

Dirulaguntza-deialdia, irabazi-asmorik gabeko entitateei zuzendua, euskara sustatzeko proiektuak egin ditzaten

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** [\(2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua\).](#)

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Irabazi-asmorik gabeko entitate eta elkarteei dirulaguntzak emateko prozesua arautzea, Iruñean euskara sustatzeko proiektuak eta jarduerak egin ditzaten.
2. Deialdiaren helburua: Diruz laguntzea euskararen erabilera sustatu, hedatu edo normalizatzea berariazko xedetzat duten proiektu eta jarduketetatik eratorritako gastuen parte bat.
3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak: Aurkeztzen diren jarduera edo proiektuek ondoko baldintzak bete behar dituzte: - Euskara sustatzea, eta euskararen normalizazioa, erabilera, hizkuntza-gaitasuna, motibazioa eta prestigioa bultzatzea. - Nagusiki Iruñeko udal-mugaratean egitea. Dirulaguntzaren xede den jarduerak, salbuespenez, Iruñeko udal-mugartea gainditzen badu, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean. - Herritarrei irekiak izatea, baldin eta parte hartzeko behar diren hizkuntza-irizpideak betetzen badituzte. - Jarduera guztiak 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitarte egin beharko dira. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira honako hauek: - Irakaskuntza-planetan aurreikusitako irakaskuntza-proiektuak eta irakaskuntza-proiektu ez-arautuak, izaera inklusiboa dutenak salbu (ikus H.3.c apartatua). - Telebista, irrati eta prentsako komunikazio-proiektuak, bertsio digitalak barne. - Sexu, sexu-orientazio edo sexu- zein genero-identitate zioengatik diskriminaziorako bide ematen duten



jarduerak oro, salbu eta sexuen arteko berdintasunik eza zuzentzea xede duten kasuetan.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 118.000 €
Deialdiaren hasierako gastua eta dirulaguntzak ematearen ondorengo gastua 2025eko behin betiko udal-aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende daude.
Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/33501/482090

3. Banakako gehiengo zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Dirulaguntzaren zenbatekoa proiektua zehaztuko da, balorazioan eskuratutako puntuazioarekin bat (H apartatua). Puntuazio horrekin bat, honako ehuneko hauek aplikatuko dira:

- 36 eta 64,99 puntu bitarte: onartutako balantzearen % 35
- 65 eta 79,99 puntu bitarte: onartutako balantzearen % 55
- 80 eta 105 puntu bitarte: onartutako balantzearen % 70

Onartutako balantzea = onartutako guztizko gastua - aurreikusitako diru-sarrerak

85 puntu baino gehiago lortu dituzten proiektuen artean, azken hiru irizpideetatik (3.d, 3.e eta 3.f) gutxienez bitan puntu gehien lortu dituzten bi proiektuek honako hau jasoko dute: onetsitako balantzearen % 100, eta menturazko hainbanaketatik (partida nahikoa ez bada aplikatuko da) kanpo geratuko dira. Berdinketarik izanez gero, zozketa-bidez ebaztuko da.
Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa ezin izanen da, inolaz ere, 22.000 euro baino handiagoa izan.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Eman beharreko dirulaguntzen baturaren emaitza eskura dagoen gehienezko zenbatekoa baino handiagoa bada, ezarritako baldintzak betetzen dituzten onuradunen artean hainbanatuko da, eta dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da haien zenbatekoen batuketa deialdiaren kreditura egokitzeraino, C.3. apartatuan ezarritakoa ezertan galarazi gabe. Hala ere, ebazpen-proposamena banan-banan jakinarazi ondoren erakunderen batek dirulaguntzari uko egiten badio, gainerako zenbatekoa proportzionalki banatuko da gainerako erakundeen artean.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	118.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.



2. Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

3. Egoitza soziala, ordezkaritza edo jarduketa-esparrua Iruñeko udalerrian edukitzea.

4. Dirulaguntzaren xede diren programa, proiektu, jarduera eta jarduketen helburuek deialdi honen xedearekin loturik egon beharko dute.

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- **Udalari ematea parte-hartzeari buruzko datuak, adinaren eta sexuaren arabera banaturik, eta euskara ikasten ari direnei zuzendutako jardueren kasuan, hizkuntza-gaitasunaren arabera.**

- **Agiri, publizitate, irudi zein material orotan hizkuntza inklusiboa erabili beharko da, eta honako balio hauek sustatu: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero-rol eta -nortasun askotarikoak.**

- **Gardentasun-betebeharrak dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitateendako. Deialdi honen kargura onuradun diren entitateek gardentasun-betebeharrari buruzko Adierazpena aurkeztu beharko dute, honekin batera doan VII. ERANSKINAREN ereduarekin bat. Adierazpen hori dirulaguntzak justifikatzeko agiriekin batera aurkeztuko da, eta oinarri hauetako P.2 apartatuan horretarako ezarritako epearen barruan.**

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Hasierako proposamena berriz egokitu behar denean jarduerak xede duen errealitatera, baimena eskatzen ahalko da hasieran aurreikusitako proiektua garatzeko moduan aldaketak egiteko, baldin eta ustekabeko inguruabarren ondorio badira edo beharrezkoak badira jarduera zuzen betetzeko, betiere:

o Aldaketa horiek ez badute aldatzen proiektuaren izaera edo helburuak.

o Ez badira herritar hartzaileei buruzkoak.

o Ez badira proiektuak lehenetsunez eragiten duen hizkuntza-erabileraren eremuari buruzkoak.

Proiektuak aldatu ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio dirulaguntza kudeatzen duen organoari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen. Iruñeko Udalaren Erregistro Elektronikoko bidez egin beharko da, Euskara Zerbitzura zuzenduta, eta zerbitzu horrek 15 eguneko epean erantzunen dio eskaerari. Aldaketak organo emaileak onartuko ditu.

Onuradunak proiektua gauzatzeko modua aldatzen badu eta aldaketa horiek ez badira aurrez baimenduak izan deialdi honetan ezarritakoaren arabera, zilegi izanen da jasotako dirulaguntzak osorik edo hein batean itzularaztea, edo, hala badagokio, dirulaguntza osorik edo hein batean kobratzeko eskubidea galtzea.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu behar dira Iruñeko Udalaren Egoitza Elektronikoko bidez, honako izapide honetan:

"Pertsona juridikoendako dirulaguntzen eskaera elektronikoa"

Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea:

HILABETE, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko eskabidez (aurkezpen telematikorako), interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen



horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanzen deialdi honetako G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere esku baditu edo beste ezein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Entitateek proiektu bat edo bat baino gehiago aurkezten ahalko dituzte. Bat baino gehiago aurkezten badituzte, ESKAERA BAT aurkeztu beharko dute PROIEKTU BAKOITZEKO. Eskaera bakoitzari dagozkion deskribapen-memoria eta finantzaketa-plana atxiki beharko zaizkio.

Proiektuak modu independentean baloratuko dira, eta dirulaguntza proiektu bakoitzari emanen zaio.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako dokumentu hauek: entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen duena, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten esku badaude, betiere eskatzaileak ez badio uko egin Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzeari.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapide telematikoarekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, jakitera emanez helburu bera lortzeko beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi eskatu edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta eskatutako kopuruak, entitate emaileen izenak eta jasotako zenbatekoak. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

I. ERANSKINA (Plan bat beteko da proiektu bakoitzeko).

g) Diruz laguntzea eskatu den proiektuaren finantza-plana: II. ERANSKINA. Plan bat beteko da proiektu bakoitzeko.

h) Erakundearen ezaugarriak egiaztatzen dituzten agiriak: III. ERANSKINA.

i) Azpikontratatzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, baldin eta eskatzaileak proiektu osoa edo zati bat azpikontratatzea aurreikusten badu: IV. ERANSKINA.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Modu telematikoan egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztatuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. ENTITATEAREN EZAUGARRIAK: 15 PUNTU, GEHIENEZ

a) Entitateak modu egonkorrean/jarraituan egitea euskara sustatzeko jarduna (gehienez ere 6 puntu):

o 5 urte bitarte: 3 puntu

o 5 urte edo gehiago: 6 puntu

b) Euskararen erabilera entitatean (gehienez ere 8 puntu):

o Egunero euskara erabiltzea: euskara izatea lehentasunezko hizkuntza entitatearen eguneroko bizitza ofizialean, eta hori entitatearen agirietan jasota agertzea (aktetan, estatutuetan, eguneroko komunikazioetan, etab.): 4 puntu

o Euskararen erabilera normalizatzeko barne-plan bat edukitzea, eta hala dela justifikatzea planaren inguruko dokumentazioa atxikita, edo euskararen presentzia eta erabilera normalizatzeko berariazko neurriak edukitzea (berariaz euskararen erabilera normalizatzeko sortutako erakundeek ez daukate plan hori aurkeztu beharrik): 4 puntu

o Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa: emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko plan bat diseinatu eta aplikatu izana: 1 puntu



2. PROPOSAMENAREN KALITATEA ETA KOHERENTZIA: 35 PUNTU, GEHIENEZ

- a) Genero-ikuspegia txertatzea: jarraian aipatzen diren neurriak baloratuko dira (gehienez ere 3 puntu):
- o Proiektuan genero-berdintasuna lantzeko berariazko jarduerak txertatu izana: 1 puntu
 - o Genero-ikuspegia txertaturik egotea proiektuaren barruan liburuak, aldizkariak, jolasak, filmak eta abar erabili, mailegatu edo proiektatzen direnean, edo hizlariak/artistak/idazleak kontratatzen direnean: 1 puntu
 - o Emakumeak eta gizonak modu orekatuan ordezkaturik egotea Zuzendaritza Batzordean (ezein sexuk ez du % 60 baino ordezkartza handiagoa izanen, ez eta %40 baino txikiagoa ere, eta bi sexuetako bakoitzak % 50eko ordezkartza izatea lortu beharko da): 1 puntu
- b) Koherentzia finkatutako helburuen eta horiek erdiesteko proposatutako jardueren eta baliabideen artean (gehienez ere 14 puntu):
- o Finkatutako helburuen, deialdi honen helburuen eta horiek lortzeko jardueren eta baliabideen arteko erlazioari buruzko azalpena azalekoa bada, edo ez oso zehatza: 4 puntu
 - o Finkatutako helburuen, deialdi honen helburuen eta horiek erdiestera bideratutako jardura eta baliabideen arteko lotura koherentea bada, baina agerikoa bada hobetzen ahal dela: 8 puntu
 - o Finkatutako helburuen, deialdi honen helburuen eta horiek lortzeko jardueren eta baliabideen arteko erlazioari buruzko azalpena argia, koherentea eta osoa bada: 14 puntu
- c) Proiektuaren ebaluazio-adierazleak (gehienez ere 3 puntu):
- o Ebaluazio-metodoa zehaztu gabe edo azaletik adierazten bada, edo agerikoa bada hobetzen ahal dela: 1 puntu
 - o Garatu beharreko ebaluazio-metodoa argi eta garbi adierazten bada, balorazio-adierazle eta/edo -parametro koherenteak agertzen badira (kualitatiboak eta/edo kuantitatiboak) eta esperotako emaitzak zehazten badira: 3 puntu
- d) Programaren komunikazio- edo hedapen-planaren egokitasuna (gehienez ere 5 puntu):
- o Programa ezagutarazi edo hedatu bai baina komunikazio eta hedapen horiek ez badira helburuetara behar beste egokitzen: 2 puntu
 - o Programaren komunikazioa edo hedapena egokiak badira helburuak betetzeko: 5 puntu
- e) Iraupena/Jarraitutasuna (gehienez ere 10 puntu):
- o Unean uneko jarduerak: 3 puntu
 - o Jardura iraunkorrak, urtean zehar programatuak eta garatuak: 10 puntu
 - o Tarteko iraupena duten aldizkako jarduerak, zikloka antolatuak: 10 puntu

*Deialditik kanpo geratuko dira puntu honetan (H.2 Proposamenaren kalitatea eta koherentzia) gutxienez 18 puntu lortzen ez dituzten proiektuak.

3. JARDUERAK ZER-NOLAKO ERAGINA DUEN EUSKARAREN HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAN IRUÑEAN: 55 PUNTU, GEHIENEZ

- a. Populazioaren zer sektorek duen lehentasuna (gehienez ere 20 puntu):
- o Publiko guztiak, oro har: 10 puntu
 - o Hurrek: 20 puntu
 - o Gazteek: 20 puntu
 - o Euskara-ikastaroetako ikasleak, baldin eta jardura haien mailara egokituta badago: 15 puntu
- b) Proiektuak hizkuntzaren zein erabilera-alorretan eragiten duen zuzenean edo lehentasunez (gehienez ere 20 puntu):
- o Familian: 20 puntu



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- o Auzoan, komunitate-bizitzan: 20 puntu
 - o Kirolean eta aisialdian / denbora librean: 20 puntu
 - o Ostalaritzan eta merkataritzan: 15 puntu
 - o Kulturaren eta hezkuntzan: 10 puntu
 - o Bestelakoetan: 5 puntu
- c) Estrategia inklusiboa: jatorria, adina, egoera fisiko, psikiko, edo sozio-ekonomikoa, sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela-eta desabantailan daudenei euskara irisgarriago egitera zuzendutako jarduerak: 5 puntu
- d) Kulturartekotasuna: proiektuak euskara beste kultura batzuetako pertsonen hurbiltzeko jarduerak bat barne hartzen badu gutxienez: 2,5 puntu
- e) Efektu biderkatzailea: proiektuak euskararen presentzia eta erabilera zabaltzeko harreman edo lankidetzak berriak sortzeko bideratutako jarduerak bat barne hartzen badu gutxienez: 2,5 puntu
- f) Berrikuntza: proiektuen izaera berritzailea baloratuko da (gehienez ere 5 puntu):
- o Proiektuak edo jarduerak oraindik erantzun gabeko erronka edo premiei erantzuten badie, edo aztertu gabeko edo gutxi aztertu diren lan-eremuei heltzen badie: 2,5 puntu
 - o Proiektuak edo jarduerak aurreko proiektuek baino helburu handiagoak betetzeko edo lortzeko estrategia bat erabiltzen badu: 2,5 puntu
- Gehieneko puntuazioa, guztira: 105 puntu

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Aitziber Campion Gamboa, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako zinegotzi berezia / Zaloa Basabe Gutiérrez, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko zinegotzi ordezkaria.
Batzordekideak:	
1.	Elían Peña Guerrero, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko zuzendaria / Alor bereko idazkari teknikoa.
2.	Inma Errea Cleix, Euskara Zerbitzuko burua / Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko beste teknikari bat.
3.	Lorea Arburua Amorena, Euskara Zerbitzuko teknikaria / Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Zuzenbidean lizentziaduna, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorrari atxikia / Zuzenbidean Lizentziaduna den Udal Aholkularitza Juridikoko beste pertsona bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organismoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat ere bai, eta hor egiaztatuko du eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela dirulaguntza jasotzen duten pertsona zein entitateek dirulaguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientearen balioespen-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balioespen-irizpide objektiboen arabera.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Balioespen-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Balorazio-batzordeak beharrezko azalpen eta argibide guztiak eskatzen ahalko ditu nahitaezko txostena egin eta baloratzeko.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Banan-banan jakinaraziko zaie entitate adjudikaziodunei dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena, BOST EGUN NATURALEKO epean hura onartzen dutela berrets dezaten. Proposamena onartzeko, entitateak oinarri hauetako V. eranskina (dirulaguntzaren behin-behineko ebazpen-proposamenaren onarpena) aurkeztu beharko du.

Ebazpen-proposamenaren ondorioz entitateak proiektua aldatu behar badu, 5 egun balioduneko epea izanen du programa berriz ere planteatzeko emanen zaion diru-kantitateari doitu, edo dirulaguntzari uko egiteko. Nolanahi ere, birformulazio horrek errespetatu egin beharko ditu hala dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua nola dirulaguntzei dagozkien balorazio-irizpideak.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntza jasoko duten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzaren zenbatekoa eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu



legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

- Gastu zuzenak:

Diruz laguntzen ahal diren zuzeneko gastutzat joko dira behar-beharrezkoak direnak, jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta diruz laguntzen den jarduera edo proiektua egiteko aurreikusitako epea amaitu baino lehen egiten direnak.

Era horretako gastuek lotura zuzena izan beharko dute jarduera antolatu eta gauzatzearekin. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

- Material suntsikorrek erostea.
- Lokalak alokatzea.
- Materialak alokatzea.
- Zerbitzu profesionalak, artistikoak... kontratatzea.

Proiektuak barne hartzen dituen jarduerak ezagutzera emateko, horien publizitatea egiteko eta, halakorik bada, merkaturatzeko gastuak.

- Mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (haurtzaindegia, ludotekak, etab.) diruz lagundutako jarduerak egin bitartean.

- Jakiekin, hornidurarekin edo ostalaritzarekin lotutako gastuak, betiere jarduerari hertsiki loturik badaude: sukaldaritza-lantegiak, kafe-solasaldia...

- Proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren langileen soldata-kostuak eta gizarte-segurantzakoak. Proiektua gauzatzeko benetan emandako denboraren zati proportzionala egotzi beharko zaio proiektu bakoitzari.

- Hizlarien, prestatzaileen, artisten eta abarren dietek eta joan-etorriek eragindako gastuak, betiere justifikaturik badaude eta proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak badira. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, gehienez 0,32 euro ordainduko da kilometro bakoitzeko.

- Proiektuaren jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun inbentariagarrien kasuan, diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira proiektuari haien amortizazioa egotzen ahal zaion proportzioan eta kontabilitatearen irizpide orokorrekin bat, betiere dirulaguntzak ez badu horiek erosten lagundu.

- Zeharkako gastuak:

Zeharkako gastutzat hartuko dira entitate eskatzailearen ohiko funtzionamenduari dagozkionak eta diruz lagundutako esku-hartzea gauzatzeko euskarri direnak, betiere zentzuz dagokion partean, oro har onartuak diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak kontuan hartuta:

- Mota horretako gastuak jarduerak gauzatzeko epe zehatzaren arabera egotziko dira, hau da, diruz lagundutako ekintzak egin diren epe zehatzari dagozkion gastuen zati proportzionala hartuko dute.

- Zeharkako gastuek ezin izanen dute proiektuaren aurrekontuaren % 25 baino handiagoak izan.

Hona hemen, besteak beste, zeharkako gastuek barne hartzen dituztenak:

- Elkartearen administrazio- eta kudeaketa-funtzioak betetzeko berariaz kontratatutako langileen gastuak.
- Bulegoko materiala eta material informatiko suntsikorrek.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Kontabilitate- eta lan-aholkularitza.
 - Aseguru orokorrak.
 - Alokairua eta lokala mantentzeko beste gastu batzuk, entitate eskatzailearen egoitza badira aurkeztutako proiektua egiteko, betiere hura bada titularra jabetza-, errentamendu- edo lagapen-erregimenean edo beste edozein titulu juridikoren pean.
 - Proiektuaren jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun inbentariagarrien kasuan, diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira proiektuari haien amortizazioa egozten ahal zaion proportzioan eta kontabilitatearen irizpide orokorrekin bat, betiere dirulaguntzak ez badu horiek erosten lagundu.
 - Proiektuko langileei egozten ahal zaizkien telefono eta Interneteko hornidurak, titulartasuna eta ordainketa entitate eskatzaileari badagokio.
 - Pertsona edo entitate eskatzailearen egoitza den lokalari egozten ahal zaizkion elektrizitatearen, uraren, gasaren, telefonoaren edo Interneten hornidurak.
- Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) apartatuaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

- Ondasun higiezinak, higigarriak eta azpiegiturak erostearekin, finantzatzearekin eta konpontzearekin zerikusia dutenak, salbu aurreko atalean adierazitakoarekin bat diruz lagundutako proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak.
- Entitateko langileen ordainsariak, baldin eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata halako 3 gainditzen badute.
- Entitatearen barne-funtzionamenduko jarduerak –herritarrei irekita ez daudenek– eragindako gastuak: entitatearen batzarrak, bilerak edo topaketak, barne-komunikaziorako eta -informaziorako bideak, etab.
- Elkartearen dieta-, kilometraje- eta bidesari-gastuak.
- Jardueretara joan edo horietan parte hartu dutenendako lunchek, bazkari-afariek, edariak, ospakizunek eta abarrek eragindako gastuak.
- Jardueretara bertaratzen diren pertsonendako ekarpenak, diruz zein gauzazkoak.
- Gauzazko ekarpenak irakasleendako edo hizlariendako ordainketa gisa.
- Proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastu-kontzeptuak eta zenbatekoa modu fidagarrian zedarriturik ez dutenak.
- Ostatuak eragindako gastuak, behar-beharrezkoak ez badira eta behar bezala justifikatuta ez badaude (jarduera garatzeko behar-beharrezkoa diren bezainbat lagun 180 km baino urrunago joatea).

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitarte.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: gehienez, % 50

Erakunde onuradunak aurreikusten badu jardueraren gauzatze partziala azpikontratatzeari, berariaz adierazi beharko du dirulaguntzaren proiektuaren eskaera-dokumentazioan.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Azpik kontratatutako enpresak edo erakundeak lankidetzat betebeharrari lotuta egonen dira deialdi honetan diruz laguntzen ahal diren gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez ezarritako mugak betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (DOO) 30.6. artikularekin bat.

Nolanahi ere, kontuan hartuko da azpik kontratatutako zatiak ez diola eragiten H.1 apartatuan (entitatearen balorazioa) emandako puntuazioari.

Entitate onuradunak inola ere ezin izanen du hitzartu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta entitateekin dirulaguntzaren xede diren jarduerak egitea.

Azpik kontratatutako enpresak edo erakundeak aurreko apartatuan (VI. eranskina) deskribatutako kasu bakar batean ere ez dagoela egiaztatzen duen aitorpena aurkeztu beharko du.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez finantzatu beharko dituzte diruz lagundutako jarduerak apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xede den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Dirulaguntzaren zenbatekoa onartutako aurrekontuaren gaineko ehuneko bat izango da, eta, balorazio-irizpideen arabera lortutako puntuazioaren arabera, aurrekontuaren % 35 eta % 70 artekoa. Gainerakoa erakundeak aurkeztu beharko du, kasu honetan izan ezik:

85 puntu baino gehiago lortu dituzten proiektuen artean, azken hiru irizpideetatik (H.3.d, H.3.e eta H.3.f) gutxienez bitan puntu gehien lortu dituzten bi proiektuek.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialditik kanpo geldituko dira Iruñeko Udalaren finantzaketa duten proiektuak edo jarduerak, kontratu zein hitzarmenen bidez, edo haien izaera edo edukia dela-eta Udalaren dirulaguntzetarako deialdi berariazkoagoen xede izan daitezkeenak. Ez dira diruz lagunduko alor beraren edo Udalaren beste alor batzuen finantzaketa eskatu duten jarduerak; jarduera bakoitzean horri lotutako gastu guztiak hartuko dira aintzat.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua:

Dirulaguntzaren % 100 ordainketa aurreratu bakarrean ordainduko da. Entitate onuradunek justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dituzte deialdi honen P) letran ezarritako epean eta moduan.

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzea:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☒ Justifikazio-kontu erraztua.

Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko da, honako izapide honetan:

"Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa"

VI. eranskina aurkeztu beharko da: Justifikazio-memoria. Hona hemen edukia:

- Egindako jarduketan, kostuaren eta lortutako emaitzen adierazpen xehatua.

- Proiektuan edo jardueran egindako alaketak.

- Ondorioak.

- Egindako gastuen (zuzeneko kostuak eta zeharkakoak bereizita) zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, ordainketa-agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo dirulaguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.

- Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

- VII. eranskina: Gardentasun-betebeharrari buruzko adierazpena

Gero, emandako agiriak aztertutakoan, egoki jotako GASTUEN eta ORDAINKETEN egiaztariak eskatuko dira, eta haien bidez dirulaguntzaren aplikazioa egokia izan den ala ez egiaztatuko da.

- Gutxienez justifikazio-agirien % 20 aurkeztea eskatuko da, eta horiekin egiaztatu ahal izanen da egindako guztizko gastuaren % 30 gutxienez gastatu eta ordaindu dela.

- Entitate onuradunek dokumentu originalak entregatu beharko dituzte, aurrez aurre bakarrik. Agiri horien fotokopiak eginen dira, eta zerbitzu kudeatzaileak konpultsatu eta adostuko ditu; gero, jatorrizkoak interesdunei itzuliko zaizkie.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Balorazio-txosten bat eman beharko da, Udaleko euskara teknikariak sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak. Halaber, txostenak egiaztatuko du onuradunak izapidean aurkeztu dituela aurreko paragrafoan zehaztutako agiriak.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: 2025eko abenduaren 31

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

1.- Emandako dirulaguntza diruz lagundutako proiektua egiteko erabiliko da. Dirulaguntza beste xede baterako erabiltzeak dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea edo zenbatekoa itzuli behar izatea dakar.

Onuradunak proiektua garatzeko modua aldatzen badu eta aldaketa horiek ez badira aurrez baimendu deialdi honetan ezarritakoarekin bat, zilegi izanen da jasotako dirulaguntzak osorik edo hein batean itzularaztea, edo, hala badagokio, dirulaguntza osorik edo hein batean kobratzeko eskubidea galtzea.

3.- Baldin eta benetako defizita eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoa baino txikiagoa bada, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzionalki murriztuko da azkenean eman behar den zenbatekoa. Dena den, dirulaguntza emateko unean hainbanatu behar izan bada, aurreko paragrafoan aipatutako murrizketa bakarrik aplikatuko da, baldin eta onetsitako defizitaren eta aurkeztutako benetako defizitaren arteko portzentajezko aldea handiagoa bada entitateari zegokion dirulaguntzaren eta azkenean hainbanatzearen ondorioz eman zaionaren arteko aldea baino.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

errekurtso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1. Behin deialdia ebatzita, emandako dirulaguntzari uko egin eta hura itzultzen bada, emandako diru-kantitatea 80/33501/482090 aurrekontu-partidan jasanaraziko da, eta ez da aldatuko gainerako entitate onuradunei emandakoa.

Deialdi honi loturiko edozein zalantza argitzeko, entitateek Euskara Zerbitzura jo dezakete, honako helbide elektronikora idatzita: euskarazerbitzua@pamplona.es

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA: DESKRIBAPEN-MEMORIA

☒ II. ERANSKINA. FINANTZAKETA-PLANA

☒ III. ERANSKINA. ENTITATEAREN EZAUGARRIAK EGIAZTATZEN DITUZTEN AGIRIAK

☒ BESTE ERANSKIN BATZUK:

IV. ERANSKINA: AZPIKONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

V. ERANSKINA: BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN-PROPOSAMENAREN ONARPENA

VI. ERANSKINA: JUSTIFIKAZIO MEMORIA

VII. ERANSKINA: ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*